



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2016IPLE0007

Eguna: 2016-07-16

Ordua: 09:30 – 11:30

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Jesus M ^a Santos Anabitarte	EAJ-PNV
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV (14. puntuari etorri da)
- Olaia Pastoriza Santos	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHBildu
- Ainara Vázquez Martínez	EHBildu
- Iker Goñi Salaberria	EHBildu
- M ^a Teresa Bernal Monroy	EHBildu
- Mikel Durán Gonzalo	Euskadiko Sozialistak (26. puntuari joan da)

Bertaratu ez direnak

- Ander Goicoechea Ocariz	EHBildu
---------------------------------	---------

Bertaraturako udal teknikariak

- Xabin Olaizola Lasa, udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / N ^o	ORDEN DEL DIA
2016ko maiatzaren 21 eta 26ko akten onarpena.	1	Aprobación de las actas de 21 y 26 de mayo de 2016.
Herri Eskolako guraso Elkarteak aurkezturiko mozioa: DBH-ko institutoaren ingurukoa.	2	Moción presentada por la asociación de padres de la ikastola: sobre el instituto de la ESO.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

EHBildu taldeak aurkezturiko mozioa: Mandela arauak.	3	Moción presentada por EHBildu: las normas Mandela.
Udal talde guztien mozio bateratua: errefuxiatuei harrera egiteko udal baliabideak bermatzea.	4	Moción conjunta de todos los grupos municipales: garantizar los recursos municipales para el acogimiento de los refugiados.
Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantza aldatzeko proposamena.	5	Propuesta de modificación de la Ordenanza de tratamiento y recogida de residuos urbanos.
Hondakin bilketa-sistema.	6	Sistema de recogida de residuos.
Tokiko Ekintza planean zenbait ekintza txertatzea eta beste zenbait aldatzeko proposamena.	7	Propuesta para incorporar nuevas actividades al Plan de Acción Local y modificar otras.
Euskal Autonomia Erkidegoko Toki jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzeko akordioa: “Udalsarea 21, jasangarritasunerako Udalerrien Euskal sarea”.	8	Propuesta de renovación del compromiso por la sostenibilidad local en la CCAA del País Vasco: “Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la sostenibilidad”.
Euskadiko landa ingurunean baso biomasaren erabilera eta energia eraginkortasuna sustatzeko energia xedearekin lankidetzeta hitzarmena.	9	Convenio colaboración para promover la eficiencia energética y la utilización de la biomasa forestal en el medio rural vasco con fines energéticos.
Astigarragako HAPOaren aldaketaren – HEA23 “Zarkumendegi zabalpena”, sagardotegien ordenantzari eta lur urbanizaezineko beste zehaztapenei dagokionez – hasierako onarpena.	10	Aprobación inicial de modificación del PGOU de Astigarraga referida al AIU 23 “Zarkumendegi zabalpena”, la ordenanza de sidrerías y otras determinaciones del suelo no urbanizable.
Alokairu sozialeko erregimenean 7 babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako oinarriak.	11	Bases para el sorteo de 7 viviendas de VPO en régimen de alquiler social.
Stua, S.A. - Minusmore, S.L. Hirigintzako hitzarmena.	12	Stua, S.A. - Minusmore, S.L. Convenio urbanístico.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Udalaren eraikin, egoitza eta instalazioak eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzua. Esleipenaren proposamena.	13	Servicio de limpieza de edificios, dependencia e instalaciones municipales y centros escolares de Astigarraga. Propuesta de adjudicación.
Kiroldegiaren eraberritzearen bigarren fase obrak. Esleipenaren proposamena.	14	Obras de la segunda fase de reforma del polideportivo (sala fitness y remates de fachada). Propuesta de adjudicación.
Kale izendegiaren aldaketa.	15	Modificación callejero.
Buruntzaldeko auto-taxiko garraio zerbitzua – Lankidetzaren hitzarmena.	16	Servicio de transporte de auto-taxi de Buruntzaldea – Convenio de colaboración.
Astigarragako kiroldegiko bazkideak, Donostiako Paco Yoldi eta Etxadi igerilekuak erabili ahal izateko Donostiako udal kirol patronatuarekin lankidetzaren hitzarmena.	17	Convenio de colaboración con el Patronato municipal de deportes de Donostia para la utilización de las piscinas Paco Yoldi y Etxadi por parte de los abonados del polideportivo de Astigarraga.
Osoko Bilkurari Alkatetzaren 483/2016 dekretuaren berri ematea.	18	Dar cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 483/2016.
2015ko Kontu Orokorra onartzea.	19	Aprobación de la Cuenta General 2015.
Osoko Bilkurari Alkatetzaren 322/2016 dekretuaren berri ematea.	20	Dar cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 322/2016.
Udalbatzarrari kontu-hartzailearen txostena 2016ko apirilaren 29koa jakinaraztea.	21	Comunicación al Pleno del informe del interventor de fecha 29 de abril de 2016.
Gastuak baimentzeko proposamena.	22	Propuesta de autorización de gastos.
Osoko Bilkurari Alkatetzaren 517/2016 dekretuaren berri ematea.	23	Dar cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 517/2016.
Udalbatzarrari kontu-hartzailearen txostena 2016ko ekainaren 7koa jakinaraztea.	24	Comunicación al Pleno del informe del interventor de fecha 7 de junio 2016.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Alkatetzaren berrestea.	747/2016	dekretua	25	Ratificación del decreto de Alcaldía 747/2016.
Informazio, galdera eta eskariak			26	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2016ko maiatzaren 21 eta 26ko akten onarpena.

Akta aho batez onartu dira.

1.- Aprobación de las actas de 21 y 26 de mayo de 2016.

Las actas se aprueban el acta por unanimidad.

2.- Herri Eskolako guraso Elkarteak aurkezturiko mozioa: DBH-ko institutoaren ingurukoa.

Alkateak Herri Eskolako guraso Elkarteak aurkezturiko mozio hau aurkeztu du:

- Astigarragako Udal osoko bilkurak Astigarragan DBHko institutua ahalik eta epe motzenez izatea beharrezkoa dela sinisten du.
- Horregatik, DBHren aldeko lana lehenetsun izango da udal osoarentzat eta gaia bideratzeko, alderdi desberdinen eta herriko eragile eta herritarren elkargune eta langunea osatzeko, Udaleko osoko bilkurak DBHaren aldeko batzorde informatzailea eratzea erabakitzen du.
- Udal osoko bilkurak 2018ko legealdia bukatu aurretik DBH kokatu behar den partzela eskuratua, erregistratua eta hiritartua izateko konpromiso irmoa hartzen du, 2019. urtean edo lehenago Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari lurra lagatzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari Astigarragako DBHrekiko duen konpromisoa zein den idatziz adierazteko, 2020rako dituen konpromisoak zehazteko

2.- Moción presentada por la asociación de padres de la ikastola: sobre el instituto de la ESO.

El alcalde presenta la moción presentada por la Asociación de Padres y Madres de la ikastola:

- El Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga cree que es necesario contar con el Instituto de ESO en el plazo más breve posible.
- Por ello, el trabajo en favor del instituto de ESO será una prioridad para todo el ayuntamiento, y al objeto de encauzar el tema, a fin de crear así un punto de encuentro y de colaboración entre las diversas formaciones políticas y los agentes y la ciudadanía de la localidad, el Pleno municipal acuerda la creación de una comisión informativa en favor del instituto de ESO.
- El Pleno municipal se compromete firmemente a adquirir, registrar y urbanizar antes de la finalización de la legislatura de 2018 la parcela en la que se emplazará el instituto de ESO, a fin de ceder al Departamento de Educación del Gobierno Vasco el terreno en cuestión para el año 2019 o antes.
- El Pleno municipal solicita al Departamento de Educación que manifieste por escrito su compromiso respecto al instituto de ESO de Astigarraga, que especifique los compromisos que tiene para el 2020 y que explique su grado



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

eta euren betetze maila azaltzeko eskatzen dio Udal osoko bilkurak.

- Udal osoko bilkurak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari eskatzen dio Astigarragan DBH izateko bete behar diren baldintzak, legealdia eta arautegia zein den zehazteko eta Astigarragak betetzen dituen ala ez eta zergatik idatziz erantzuteko.

- Mozio hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaturata dauden alderdi politiko guztiei helaraztea eskatzen du Udal osoko bilkurak.

Alkateak adierazi du bozeramaile batzordean alderdi guztien adostutako mozioa dela, eta bere taldeak onartuko duen arren, zalantza dutela ezarritako epeetan urbanizazioa bukatzeko denbora egongo ote den, besteak beste, oraindik proiekturik ez dagoenean.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du bozeramaile batzordean luze eztabaidatutako mozioren alde bozkatuko dutela. Eta gaineratu du bigarren hezkuntza gai estrategikoa bada, udalak konpromisoak hartu behar dituela, helburua urratsak ematen hastea izanik, eta mozioa bide horretatik doala.

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta komentatu du bozeramaile batzordean eta guraso elkarteko kideei adierazi moduan, alde bozkatuko duela. Gaineratu du; batetik, proiektu estrategikoa dela eta hezkuntza publikoaren alde daudela; eta bestetik, bi erakundeei eragin diela, eta udalak bere etxeko-lanak egin behar dituen bezala, Jaurlaritzari bereak egiteko eskatu behar zaiola.

Zorione zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du deigarria iruditzen zaiola guraso elkarteko kideak bertaratu ez izana, normalean elkarteak aurkeztutako mozioa defendatzera etortzen baitira. Andoni zinegotziak erantzun dio bere taldeak ez dakiela zergatik ez diren bertaratu, baina alegia ordutegiarengatik izan daitekeela.

de cumplimiento.

- El Pleno municipal solicita al Departamento de Educación del Gobierno Vasco que especifique las condiciones, el periodo legislativo y la normativa que se deberán cumplir para contar con el instituto de ESO en Astigarraga, y que responda por escrito si la localidad los cumple o no.

- El Pleno municipal solicita trasladar esta moción al Departamento de Educación del Gobierno Vasco y a todas las formaciones políticas con representación en el Parlamento Vasco.

El alcalde indica que se trata de una moción consensuada por todas las partidos en la junta de portavoces, y que, aunque su grupo la va a aprobar, tiene dudas si habrá tiempo para finalizar la urbanización en los plazos establecidos, dado que, entre otros, de momento no hay proyecto.

El concejal Andoni toma la palabra y señala que votará a favor de la moción largamente debatida en la junta de portavoces. Y añade que si la educación secundaria es un tema prioritario, el ayuntamiento debe tomar compromisos, tomando como objetivo que se empiecen a dar pasos en ese sentido, y que esta moción va en esa dirección.

Toma la palabra el concejal Mikel y comenta que, tal y como manifestó en la junta de portavoces y a los miembros de la comisión de padres y madres, votará a favor. Añade que, por una parte, se trata de un proyecto estratégico y que están a favor de la educación pública, y, por otra, que afecta a las dos instituciones, y que al igual que el ayuntamiento tiene que hacer sus deberes, hay que exigir al Gobierno Vasco que haga también los suyos.

Toma la palabra la concejala Zorione y señala que le parece llamativo que no hayan asistido los miembros de la asociación, dado que normalmente los grupos suelen acudir a defender la moción presentada. Le contesta el concejal Andoni señalando que su grupo



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Jarraian **mozioa** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez onartu da**.

3.-EHBildu taldeak aurkezturiko mozioa: **Mandela arauak.**

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza, azken horrek bere taldeak aurkeztutako mozio hau azaltzeko:

- 1.- Astigarragako Udalak bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatzeko Oinarrizko Mandela Arauekin.
- 2.- Astigarragako Udalak, Euskal Presoei Mandela Arauak aplika dakizkien eskatzen du, besteak beste, gaixo dauden presoek tratatu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidearen haritik, dispersioarekin amaituz.
- 3.- Astigarragako Udalak, Mandela Arauak oinarriz harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuiatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontutan izanik, egoera hau pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du Astigarragako Udalak.
- 4.- Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailaren 18a Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, kartzelaratze baldintza arbitrarioen kontra agertuz eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatuz.

Andoni zinegotziak mozioa aurkeztu izanaren arrazoiak azaldu ditu, eta adierazi; batetik, euskal presoen eskubideak bermatu behar direla eta egoera hobetu; eta bestetik, euskal presoen kasuan “Mandela” arauak ez direla betetzen.

desconoce por qué no han asistido, pero que tal vez pueda ser por el horario.

A continuación se procede a la votación de la **moción**, que **se aprueba por unanimidad**.

3.- Moción presentada por EHBildu: las **normas Mandela.**

El alcalde cede la palabra al concejal Andoni, para que exponga la siguiente moción presentada por su grupo:

- 1.- Se adhiere a las Normas Mandela, Normas Mínimas para el Tratamiento de Reclusos y Reclusas.
- 2.- Solicita que las Normas Mandela sean de aplicación para los y las presas vascas, al hilo, entre otros, del derecho que les asiste a los y las presas enfermas a recibir un trato digno y a mantener relaciones con su familia, terminando con la dispersión.
- 3.- Rechaza, basándose en la Normas Mandela, la utilización sistemática del aislamiento extremo como castigo habitual y común. Considerando que el aislamiento tiene efectos psíquicos terribles en los y las reclusas, se solidariza con aquellos/as que padecen esa situación.
- 4.- Conforme a la recomendación de las Naciones Unidas, nos adherimos a la celebración del Día Mandela en favor de los Derechos de los y las Reclusas, manifestándonos en contra de las condiciones arbitrarias de encarcelamiento y reivindicando que los y las reclusas forman también parte de la sociedad.

El concejal Andoni expone las razones de la presentación de la moción, y señala, por una parte, que se deben garantizar los derechos de las personas presas y mejorar su situación, y, por otra, remarca que en el caso de las personas presas vascas no se cumplen las reglas “Mandela”.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bozeramaile batzordean adostu bezala, mozioa puntuz puntu bozkatu da:

- Mozioaren **1. puntua** aho batez **onartu** da.
- Mozioaren **2. puntua onartu** egin da, PNV-EAJ eta EHBilduren ordezkarien aldeko 10 botoekin eta Euskadiko Sozialisten abstentzioarekin.
- Mozioaren **3. puntua onartu** egin da, PNV-EAJ eta EHBilduren ordezkarien aldeko 10 botoekin eta Euskadiko Sozialisten abstentzioarekin.
- Mozioaren **4. puntua** aho batez **onartu** da.

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du bozeramaile batzordean mozioa puntuz puntu bozkatzea eskatu zuela, hainbat alderdiekin ez dagoelako ados. Andoni zinegotziak kuriosotzat hartu du “Mandela” araukin ados egotea, eta gero euskal presoek ez aplikatzea eta puntu horietan abstenitzea. Mikel zinegotziak erantzun dio araukin ados dagoela eta estatuak bere araudira ekarri behar duela, baina mozioaren ideia batzuekin ez dagoela ados, eta hemen – munduko beste inguruetan ez bezala – “Estado de Derecho” batean gaudela.

4.- Udal talde guztien mozio bateratua: errefuxiatuei harrera egiteko udal baliabideak bermatzea.

Udal talde guztien mozio bateratu hau aurkeztu da:

- Irailetik aurrera udalak jasoko dituen 6 etxebizitzetako bat, aurtengo negurako errefuxiatu famili batentzat eskuragarri egotea.

Erreserba honek urtebeteko iraupena izandu du, eta behin epe hori pasata, udalak erabakiko du zein helburu berritarako bideratuko den.

Tal y como se acordó en la junta de portavoces, se vota la moción punto por punto:

- **Se aprueba el punto 1** de la moción por unanimidad.
- Se aprueba el punto **2 de la moción**, con los 10 votos a favor de los representantes de PNV-EAJ y EHBildu, y la abstención de los Socialistas Vascos.
- Se aprueba el punto **3 de la moción**, con los 10 votos a favor de los representantes de PNV-EAJ y EHBildu, y la abstención de los Socialistas Vascos.
- **Se aprueba el punto 4** de la moción por unanimidad.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que en la junta de portavoces solicitó que la moción se votase punto por punto, porque no estaba de acuerdo con diversos aspectos. Al concejal Andoni le parece curioso que esté de acuerdo con las reglas “Mandela”, y que luego no se apliquen a los presos vascos y abstenerse en esos puntos. El concejal Mikel le contesta que están de acuerdo con las reglas y que el Estado las debe incorporar a su normativa, pero que está en desacuerdo con algunas ideas de la moción, y que aquí, a diferencia de otros lugares del mundo, nos encontramos en un Estado de Derecho.

4.- Moción conjunta de todos los grupos municipales: garantizar los recursos municipales para el acogimiento de los refugiados.

Se presenta la siguiente moción conjunta de todo grupos municipales:

- Que una las 6 viviendas que recibirá el ayuntamiento a partir de septiembre esté disponible para una familia de refugiados de cara el invierno de este año.
- Esta reserva tendrá una duración de un año, y una vez concluido dicho plazo, el ayuntamiento acordará para qué nuevos objetivos se destinará.
- Que la gestión tanto de la vivienda como de la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Etxebizitza eta egoeraren kudeaketa udalak zuzenean edo beste erakunde edo elkarteren baten bitartez burutzea.

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza, eta azken horrek azaldu du mozioa bere taldeak aurkeztu zuela eta bozeramaile batzordean aztertu ondoren, testu berria udal talde guztien artean adostu dela.

Jarraian mozioa udal osoko bilkurak onartuko "Errefuxiatuen krisi humanitaria" moziotik datorrela azaldu du, eta bere egunean mozio horretatik kendu bazen, mozio hura aho batez onartzeko izan zela. Eta gaineratu du mozio honekin jarrera aktibo bat eduki nahi dela errefuxiatuek jasaten duten egoera latzean, eta ekarpen txiki bat izan arren, pauso bat dela.

Zorione zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du bere egunean aurkeztutako mozioarekin batera onartu nahi izan ez bazuten, elkartasuna adieraztea eta etxebizitza bat uztea desberdin dela pentsatzen dutelako dela. Gaineratu du udalak gaur egun erronka garrantzitsua duela errumaniar kanpamenduarekin, bertako herritarrak zailtasunak dituztelako etxebizitzak aurkitzeko, eta alojera sozialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko aukera duten arren, horrek ez duela bermatzen etxebizitza bat lortuko dutenik.

Mikel zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du hasieratik etxebizitza uztearen alde egon dela. Gaineratu du errefuxiatuen krisi handi baten aurrean gaudela eta Europak errefuxiatuen laguntzan erantzun eta jarrera motela eta egoista izan duela.

Andoni zinegotziak hartu du berrito hitza, eta komentatu du egia dela kanpamenduko herritarrak edo herriko gazte asko etxebizitzak aurkitzeko arazoak dituztela, baina udalak horiek baino egoera okerragoan daudenekin elkartasuna adierazi behar duela, eta beharrezkoa bada udal errekurtsioak sakrifikatu.

situación se lleve directamente por parte del ayuntamiento o de otra institución o asociación.

El alcalde cede la palabra al concejal Andoni, que expone que la moción fue presentada por su grupo y que tras ser analizada en la junta de portavoces, el nuevo texto ha sido acordado entre todos los grupos municipales.

Seguidamente expone que la moción deriva de la moción "*Crisis humanitaria de los refugiados*" aprobada por el pleno municipal, y que si en su día se suprimió de esa moción, fue para que dicha moción se aprobase por unanimidad. Y añade que mediante esta moción se quiere tener una actitud activa en la terrible situación que padecen los refugiados, y que aunque se trate de una pequeña aportación, es un paso.

Toma la palabra la concejala Zorione e indica que si no la aceptaron junto con la moción presentada en su día, es porque piensan que manifestar solidaridad y ceder una vivienda son cosas diferentes. Añade que el ayuntamiento tiene hoy en día un reto importante con el campamento rumano, porque las personas que lo habitan tienen dificultades para encontrar viviendas, y que pese a tener opción a participar en el sorteo de viviendas de alquiler social, ello no garantiza que vayan a obtener una.

Toma la palabra el concejal Mikel, y señala que desde el inicio ha sido favorable a la cesión de vivienda. Añade que nos hallamos ante una gran crisis de refugiados, y que Europa ha tenido una respuesta y una actitud apática y egoísta.

Toma de nuevo la palabra el concejal Andoni, y comenta que es cierto que las personas del campamento o muchos jóvenes de la localidad tienen problemas para encontrar viviendas, pero que el ayuntamiento tiene que manifestar su solidaridad con los que se hallan en situaciones aún peores, y sacrificar recursos municipales, si resulta necesario.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Jarraian **mozioa** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez onartu** da.

A continuación se procede a la votación de la **moción**, que **se aprueba por unanimidad**.

5.- Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantza aldatzeko proposamena.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehen atala.- Hiri hondakinen bildu eta tratatzeko udal ordenantzan ondorengo aldaketak jasotzea:

- 17. artikuluko 7. azpiatala ezabatzea.
- 34. artikulua honela idaztea:

“34. artikulua. Etxebizitzetako eraikuntza eta eraiste lan txikietan sorturiko hondakinak.

- Beren etxe bizitzetan bizilagunek zuzenean egindako konponketa, eraikuntza, edo eraiste lan txikietan sorturiko hondakinak, ondokoetan entregatu behar dira, honadakin-kopuruaren arabera:

-Garbigunearen erabilerarako araututako kopurua ez badu gainditzen, garbigunean entregatu daiteke.

- Bestela, honakin mota horretarako baimendutako kudeatzaile bati.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta aurreratu du alde bozkatuko dutela, herritarrek hondakinen bilketa-sistema aldatzea aukeratu dutenez, ordenantzaren bi artikuluko horiek moldatu behar direlako.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez onartu** da.

5.- Propuesta de modificación de la Ordenanza de tratamiento y recogida de residuos urbanos.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Recoger las siguientes modificaciones en la Ordenanza de recogida y tratamiento de Residuos Urbanos: Eliminar el punto 7 del artículo 17.

Redactar el artículo 34 de la siguiente manera:

“artículo 34. Residuos de construcción y demolición generados en obras menores.

- Los residuos generados por los/as vecinos/as en obra de construcción, arreglo o demolición en un domicilio particular, se depositarán en los siguientes puntos, según el volumen de residuo:

- Si no excede el volumen regulado por el servicio de Garbigune, podrá entregarlo en el Garbigune.

- De lo contrario, la entrega se realizará a través de gestor autorizado para ese tipo de residuo.

Toma la palabra el concejal Andoni y anticipa que votará a favor, porque al haber elegido la ciudadanía el sistema de recogida de residuos, esos dos artículos de la ordenanza deberán ser adaptados.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

6.- Hondakin bilketa-sistema.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Hondakinen bilketa-sistema San Marko mankomunitatearen esku uztea; eta horretarako, Udalak Garbitaniarekin duen kudeatzeko gomendioa (*encomienda de gestión*) berreskuratu eta San Marko Mankomunitatearekin lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko espediente abian jartzea.

Bigarrena.- Lankidetzeta-hitzarmena prestatzeko ahalmena alkateari ematea, bertan gutxienez honako hauek jasoaz:

1.- San Marko Mankomunitateari Astigarragako ontzi arinak eta papera eta kartoia gaika biltzeko kudeaketa ematea. Edukiontziak irekiak izango dira

2.- San Marko Mankomunitateari Astigarragako hiri-hondakinen zati organikoa gaika biltzeko zerbitzuaren kudeaketa ematea. Edukiontziak itxiak izango dira eta bi aldeek adostutako irekitzeko sistema izango dute.

3.- San Marko Mankomunitateari errefus atala biltzeko zerbitzua eman dezan eskatzea. Edukiontziak itxiak izango dira, astean behin zabalduko dira eta bi aldeek adostutako irekitzeko sistema izango dute.

4.- San Marko Mankomunitateari pardelak jasotzeko zerbitzua eman dezan eskatzea. Edukiontziak itxiak izango dira eta bi aldeek adostutako irekitzeko sistema izango dute.

5.- Gainerako hondakin atalen bilketa zerbitzua San Marko Mankomunitateak ematen jarraitzeko eskatzea, hots, pilak, erropa eta beira.

6.- Olioaren bilketa San Marko Mankomunitateak kudea dezala eskatzea.

6.- Sistema de recogida de residuos.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Asignar el sistema de recogida de residuos a la Mancomunidad de San Markos, recuperando para ello la encomienda de gestión efectuada por el Ayuntamiento a Garbitania, y poner en marcha el expediente para la firma del correspondiente convenio de colaboración con la Mancomunidad.

Segundo.- Otorgar poderes al alcalde para la elaboración del convenio de colaboración que recoja al menos los siguientes puntos:

1.- Conferir a la Mancomunidad de San Markos la gestión para la recogida selectiva de envases ligeros, papel y cartón de Astigarraga. Los contenedores serán abiertos

2.- Conferir a la Mancomunidad de San Markos la gestión de la recogida selectiva de la fracción orgánica de los residuos urbanos. Los contenedores serán cerrados y dispondrán de sistema de apertura acordado por ambas partes.

3.- Solicitar a la Mancomunidad de San Markos que ofrezca el servicio de recogida de la fracción rechazo. Los contenedores serán cerrados, se abrirán una vez por semana y dispondrán de sistema de apertura acordado por ambas partes.

4.- Solicitar a la Mancomunidad de San Markos que ofrezca el servicio de recogida de pañales. Los contenedores serán cerrados y dispondrán de sistema de apertura acordado por ambas partes.

5.- Solicitar que la Mancomunidad de San Markos continúe ofreciendo la recogida de las demás fracciones de residuos, es decir, pilas, ropa y vidrio.

6.- Solicitar que la recogida de aceite sea



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

7.- Bi aldeek adostutako herritarrei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak egiteko eskatzea.

8.- Erabaki honetataik kanpo geratu diren alderdiak bi aldeen artean sinatu beharreko hitzarmenak jasotzea.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Garbitania enpresari eta San Marko mankomunitateari ematea, ohartaraziz bigarrenarekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu bitartean, Garbitania enpresari egindako kudeatzeko gomendioa indarrean mantenduko dela.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du gaia batzordetik pasa dela aurreko batzordeak hartutako erabakia (15 eguneko epea ematea San Markosek txostena moldatzeko) errespetatu gabe, eta ez duela teknikariaren eta kontu-hartzailearen txostenik. Gaineratu du ez zaiela logikoa iruditzen zerbait onartzea, jakin gabe bilketa nola egingo den eta zenbateko kostua izango duen, eta ez direla langileak kontuan hartu.

Alkateak erantzun dio hori guztia hitzarmenean jasoko dela; eta Zorione zinegotziak azaldu du San Markosen eskaintza onartu nahi bada, bietatik merkeena delako izan dela.

Andoni zinegotziak erantzun die; batetik, errefusa jasotzea Garbitaniarekin merkeago ateratzen dela, eta orokorrean San Markosekin zerbitzua merkeago ateratzen bada, kuotarekin ordainduko delako dela, baina udalak zerbitzu horiek kuota bidez ezin direlako ordaindu auzi-errekurtsoa sartu zuela mankomunitatearen kontra, eta egun dagoen epaia bakarra gure aldekoa dela. Eta bestetik, eskaintza ekonomikoa ezin dela behar bezala aurkeztu langileen subrogazio-gastua zenbat den eta bilketa hainbat gunetan (landa eremuan, sagardotegi eta merkataritzan) nola jasoko den jakin gabe; eta gainera, eskaintza hori ez duela mankomunitateak egin, FCCek enpresak

gestionada por la Mancomunidad de San Markos.

7.- Solicitar la realización de campañas de información y sensibilización dirigidas a la ciudadanía, acordadas por las dos partes.

8.- Que los aspectos que han quedado fuera de este acuerdo reciban los convenios que deben firmar las dos partes.

Tercero.- Dar cuenta de este acuerdo a la empresa Garbitania y a la Mancomunidad de San Markos, advirtiendo que hasta que no se firme el convenio de colaboración con la Mancomunidad, se mantendrá en vigor la encomienda de gestión efectuada a Garbitania.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que el asunto ha pasado por la comisión sin que se respete el acuerdo tomado por la comisión anterior (conceder un plazo de 15 días para que San Markos adapte el informe), y que no dispone de informe del técnico y del interventor. Añade que no les parece muy lógico aprobar algo sin saber cómo se va a realizar la recogida y el coste que tendrá, y que no se ha tenido en cuenta a los trabajadores.

El alcalde le contesta que todo ello se recogerá en el convenio, y la concejala Zorione expone que si se quiere aceptar la oferta de San Markos es porque es la más económica de las dos.

El concejal Andoni les contesta, por una parte, que recoger la fracción resto resulta más económico con Garbitania, y que si el servicio de San Markos resulta más económico en general es porque se abonará mediante la cuota, pero que el ayuntamiento interpuso recurso contencioso contra la mancomunidad porque esos servicios no pueden abonarse mediante cuota, y que la única sentencia que hay actualmente es a nuestro favor. Y por otra, que la oferta económica no puede presentarse como es debido sin saber a cuánto asciende el gasto de subrogación de los trabajadores y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

baizik.

Alkateak azaldu dio merkatariei gaur egun bezala jasoko zaizkiela hondakinak eta beste hainbat alderdi zehaztear daudela, baina horiek guztiak hitzarmenean jasoko direla, eta hitzarmen hori batzordetik pasako dela. Gainera, adierazi du zerbitzua San Mankomunitatean utziz gero, udalak 200.000 euro aurreratuko dituela.

Andoni zinegotziak komentatu du aurkeztu diren bi eskaintzetatik bata bestea baino landuagoa dela, teknikariaren txostenik ez dagoela eta dagoen txosten bakarra udal-idazkariarena dela, eta horretan zerbitzua mankomunitatearen esku uztearen alderdi legala bakarrik aztertu dela. Eta Nerea zinegotziak erantzun dio bi eskaintzak ezin direla konparatu.

Andoni zinegotziak galdetu du errefusa jasotzea Garbitania enpresaren esku zergatik ez den uzten, eta alkateak erantzun dio hobe dela zerbitzu osoa enpresa berak ematea.

Kontu-hartzaileari pasa zaio hitza, eta horrek adierazi du bi eskaintzak ez daudela homogenizatuta, eta dirudiela San Markosena merkeagoa dela. Eta hori horrela dela zerbitzu zati bat "doan" emango delako, baina auzi-errekurtsoen ondoren gaia nola geldituko den ez dakigula, eta litekeena dela horrek kostuetan eragina edukitzea. Baina badakiela zerbitzua San Markosen esku uztea erabaki politikoa dela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **onartu egin da**, PNV-EAJ eta Euskadi Sozialisten aldeko 6 botoekin, eta EHBildu taldeko kideen kontrako 5 botoekin.

Bizilagun batek hartu du hitza eta galdetu du erabaki bat nola hartu daitekeen gauzak definituta egon gabe.

cómo se efectuará la recogida en varias zonas (zonas rurales, sidrerías y comercios), y que, además, esa oferta no ha sido realizada por la mancomunidad, sino por la empresa FCC.

El alcalde le explica que a los comerciantes se les recogerán los residuos como en la actualidad y que otros aspectos están aún por detallar, pero que todos ellos serán recogidos en el convenio, que será tratado en la comisión. Además, ha indicado que si se deja el servicio en manos de la Mancomunidad de San Markos, el ayuntamiento adelantará 200.000 euros.

El concejal Andoni comenta que de las dos ofertas presentadas una es más elaborada que la otra, que no hay informe del técnico y que el único informe existente es el de la secretaria municipal, y que en él sólo se ha estudiado la parte legal de dejar el servicio en manos de la mancomunidad. Y la concejala Nerea le contesta que las dos ofertas no se pueden comparar.

El concejal Andoni pregunta por qué no se deja la recogida de la fracción resto en manos de la empresa Garbitania, y el alcalde le responde que es mejor que una misma empresa lleve todo el servicio.

Cede la palabra al interventor, que señala que las dos ofertas no están homogeneizadas y que parece que la de San Markos es más económica. Y que eso es así porque una parte del servicio se ofrecerá de "manera gratuita", pero que no se sabe cómo quedará el tema tras los recursos contenciosos, y que es posible que eso tenga su influencia en los costes. Pero que ya sabe que dejar el servicio en manos de San Markos es una decisión política.

A continuación, se procede a la votación del **dictamen**, que **resulta aprobado**, con los 6 votos a favor de PNV-EAJ y Socialistas Vascos, y los 5 votos contrarios de los miembros del grupo EHBildu.

Toma la palabra una vecina y pregunta cómo se puede tomar una decisión sin que las cosas



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

estén definidas.

7.- Tokiko Ekintza planean zenbait ekintza txertatzea eta beste zenbait aldatzeko proposamena.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

LEHEN ATALA.- Astigarragako Ekintza Planean honako aldaketak, ekintza berriak eta biformulazioak egitea:

3. LE. URA, ENERGIA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA ERAGINKORRA SUSTATU UDALERRIAN ETA UDALEAN ETA ZENTZUZKO KONTSUMOA BULTZATU
P 3.1. UDAL ENERGIA KUDEAKETA ETA PLANGINTZA HOBETU ERABILERA AHALIK ETA ERAGINKORRENA SUSTATUZ

3.1.1 Udal ekipamendu guztietako eta argiteria publiko osoko kontsumoa monitorizatu.

1.7 Kontsumo handiena duten eraikuntzetan energiaren monitorizazio sistemak ezarri, honekin batera energia alorreko jardunbide egokien plangintza osatuz. (3.1.1)

3.1.2 Energia kontsumoa optimizatuko duen Energia Ekintza Plan bat egin.

3.1.3 Energia kontsumo iraunkorra sustatzeko udal ordenantza bat egin.

3.1.4 Udal eraikinen ziurtapen energetikoa aurrera eraman.

1.11 Udaleko zerbitzu guztientzako eta enpresa publikoentzako energiaren kudeaketa zentralizaturako software bat ezarri, kontsumoen kontrola eta kontabilitate energetikoa baimenduko duena. (3.1.5)

7.- Propuesta para incorporar nuevas actividades al Plan de Acción Local y modificar otras.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

PRIMERO.- Reformular, modificar y añadir en el Plan de Acción municipal las siguientes acciones:

LINEA ESTRATÉGICA 3: PROMOVER UNA GESTION EFICIENTE DEL AGUA, LA ENERGÍA Y LOS RESIDUOS EN EL MUNICIPIO E IMPULSAR EL CONSUMO RESPONSABLE.

PROGRAMA 3.1. MEJORAR LA GESTIÓN Y PLANIFICACIÓN ENERGÉTICA MUNICIPAL PROMOVRIENDO EL USO MÁS EFICIENTE POSIBLE

3.1.1. Monitorizar el consumo de todos los equipamientos municipales y del alumbrado público.

1.7 Implantar sistemas de monitorización energética en los edificios de mayor consumo acompañada de un plan de buenas prácticas energéticas. (3.1.1.)

3.1.2 Elaborar un Plan Energético para la optimización del consumo de energía.

3.1.3 Realizar una ordenanza municipal para promover el consumo eficiente de energía.

3.1.4 Llevar a cabo la certificación energética de los equipamientos municipales.

1.11 Implantar un software de gestión energética centralizado para todos los servicios del Ayuntamiento y de las empresas públicas, que permita el control de consumos y la contabilidad energética. (3.1.5)

P 3.2. PROGRAMA: UDAL

P 3.2 PROMOVER LA EFICIENCIA



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

EKIPAMENDUETAN ETA ARGITERI
PUBLIKOAN ENERGIA
ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA
BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA
SUSTATU.

P 3.2 UDAL EKIPAMENDUETAN ETA
ARGITETRIA PUBLIKOAN ENERGIA
ERAGINKORTASUNA SUSTATU

3.2.1 Egindako energia auditoretzan
proposatutako energia eraginkortasun
hobekuntzen ekintzak gauzatu.

3.2.2 Udal eraikinetako argiak berritzeko
ekintza plana guztiz ezarri.

3.2.3 Udal eraikinetan energia
berriztagarrien ekoizpena sustatzeko aukera
ezberdinak aztertu.

1.1 Galdara eta hozte-sistema zaharrenak
eta eraginkortasun txikiak dituztenak
berritu, erabilgarri dauden teknologia eta
ekipoen bitartez. (3.2.2).

1.2 Klimatizazio igorle-sistemen
eraginkortasuna eta sektorizazioa handitu,
eraginkorrak ez diren sistema edo
hobekuntza aukerak dituzten eraikuntzetan.
(3.2.3).

1.3 Isolamenduak sendotu eta klimatizazio
eta UBS (ur bero sanitariorako)
sistemarako erregulazio sistemak jarri.
(3.2.4).

1.4 Eraikuntzetako argiztapen
instalakuntzetako osagai ez eraginkorrak
aldatu, kontsumo baxuko osagaiak jarri eta
kontrol sistemak gehitu. (3.2.5)

1.5 Existitzen diren eraikuntzetako
ingurutzailen termikoak hobetu eta neurri
bioklimatikoak, aireztapen naturala eta
eguzki-babesleak gehitu. (3.2.6).

1.6 Irizpideen eskuliburua idatzi eta ezarri,
zeinak udal barneko erabilera izan eta

ENERGÉTICA Y LA UTILIZACIÓN DE
ENERGÍAS RENOVABLES EN
EQUIPAMIENTOS MUNICIPALES Y
ALUMBRADO PÚBLICO.

3.2 PROMOVER LA EFICIENCIA
ENERGÉTICA EN EQUIPAMIENTOS
MUNICIPALES Y ALUMBRADO PÚBLICO

3.2.1 Ejecutar las acciones para la mejora de la
eficiencia energética derivadas de la auditoría
energética.

3.2.2 Implantar el plan de acción para la
renovación de las luminarias de los
equipamientos municipales.

3.2.3 Analizar diferentes alternativas para
promover la instalación de energías renovables
en los equipamientos municipales.

1.1 Renovar las calderas y sistemas de
refrigeración más antiguos y más ineficientes
con las mejores tecnologías y equipos
disponibles. (3.2.2)

1.2 Aumentar la eficiencia y sectorización de
los sistemas emisores de climatización en
aquellos edificios que tengan sistemas
deficientes, o con posibilidades de mejora.
(3.2.3)

1.3 Reforzar los aislamientos e instalar
sistemas de regulación de los sistemas de
climatización y ACS. (3.2.4)

1.4 Sustituir los componentes ineficientes de las
instalaciones de iluminación de edificios, por
componentes nuevos de bajo consumo e
incorporar sistemas de control. (3.2.5)

1.5 Mejorar las envolventes térmicas de los
edificios existentes e incorporar medidas
bioclimáticas, ventilación natural y protecciones
solares. (3.2.6)

1.6 Redactar e implantar un manual de criterios
para uso interno municipal y para el control de
externalizaciones en materia energética para
contribuir a que los nuevos edificios y
rehabilitaciones dispongan de certificación
energética de A y B, respectivamente. (3.2.6)



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

azpikontratatuena kontrola egingo duen. Honen helburua eraikuntza berriek eta birgaitutakoek A eta B motako gutxieneko energia ziurtagiria lortzen laguntzea da, hurrenez hurren. (3.2.7).

1.8 Energiaren telekudeaketarako sistema adimentsuak ezarri kontsumo handiena duten eraikuntzetan. (3.2.8).

1.9 Prebentzio-mantenuaren ezarpena bermatu, baita RITE-ren eskakizun guztiak, eraikuntza publiko guztietan dauden klimatizazio eta ur bero sanitarioko instalazioetan. (3.2.9).

1.10 Egungo garbiketa kontratuan edo kontratazio berrietan garbiketa langileei zuzendutako jardunbide egokiak sartu. (3.2.10).

1.12 Udal teknikariei zuzendutako formakuntza jarraiturako programa burutu, eraikuntza publikoetako energia instalazioen erabilera eraginkorraren alorrean. (3.2.11).

P 3.3 UDALERRIKO SEKTORE DESBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATU
P 3.3 UDAL EKIPAMENDUETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATU

2.1 UBS kontsumo handienak dituzten udal eraikuntzetan eguzki sistema termikoak instalatzen jarraitu. (3.3.4).

2.2 Posible den udal eraikuntza guztietan eguzki energia fotovoltaikoa progresiboki ezarri. (3.3.5).

2.3 Eguzki sistema termiko eta fotovoltaikoen funtzionamendu zuzena eta eraginkorra bermatu. (3.3.6).

2.4 Erregai fosilak erabiltzen dituzten galdera zaharrak berritu, biomasazko

1.8 Implantar sistemas de telegestión energética inteligente en los edificios de mayor consumo. (3.2.8)

1.9 Garantizar la implantación de mantenimiento preventivo, así como todas las exigencias del RITE en las instalaciones existentes de climatización y agua caliente sanitaria de todos los edificios públicos. (3.2.8)

1.10 Introducir en el contrato de limpieza actual o en los nuevos contratos, buenas prácticas del personal de la limpieza respecto al control de la calefacción e iluminación. (3.2.10)

1.12 Llevar a cabo un programa de formación continua dirigido al personal técnico municipal en materia de uso eficiente de las instalaciones energéticas de los edificios públicos. (3.2.11)

P 3.3 PROMOVER LA UTILIZACION DE ENERGÍAS EFICIENTES Y RENOVABLES EN LOS DIFERENTES SECTORES DEL MUNICIPIO

P 3.3 PROMOVER LA UTILIZACION DE ENERGÍAS RENOVABLES EN EQUIPAMIENTOS MUNICIPALES (3.3)

2.1 Continuar con la instalación de sistemas solares térmicos en los edificios municipales de mayor consumo de ACS. (3.3.4)

2.2 Implantar progresivamente energía solar fotovoltaica en todos los edificios municipales donde resulte posible. (3.3.5)

2.3 Garantizar el funcionamiento correcto y eficiente de los sistemas solares térmicos y fotovoltaicos. (3.3.6)

2.4 Renovar las calderas antiguas de combustibles fósiles por calderas de biomasa, creación de pequeñas redes de distribución de calor. (3.3.4)



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

galderak jarriz, bero-banaketarako sare txikiak sortu. (3.3.7).

Bizilagun batek energia nondik eskuratuko den galdetu du; biomasaren bidez, hau da, organikoaren bidez, lortzen den jakin nahi du.

Andoni zinegotziak azaldu dio oraingo honetan ez dela energia lortzearen inguruko eztabaida, baizik eta, udalak energi planarentzat neurriak hartu dituela, eta horiek orain tokiko ekintza planean txertatu behar direla.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzeko akordioa: “Udalsarea 21, jasangarritasunerako Udalerrien Euskal sarea”.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehen atala.- Euskal autonomia erkidegiko toki jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzea “Udalsarena 21”.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

9.- Euskadiko landa ingurunean baso biomasaren erabilera eta energia eraginkortasuna sustatzeko energia xedearekin lankidetzak hitzarmena.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehen atala.- Energiaren Euskal Erakundea, HAZI eta Astigarragako

Una vecina pregunta de dónde se obtendrá la energía, y quiere saber si se obtendrá por medio de la biomasa, es decir, de la materia orgánica.

El concejal Andoni le contesta que en este caso el debate no es en torno a la obtención de energía, sino que el ayuntamiento ha tomado medidas para el plan energético, y que ahora se debe insertar en el plan local.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

8.- Propuesta de renovación del compromiso por la sostenibilidad local en la CCAA del País Vasco: “Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la sostenibilidad”.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Renovar el Compromiso por la sostenibilidad local en la Comunidad Autónoma del País Vasco “Udalsarena 21”.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

9.- Convenio colaboración para promover la eficiencia energética y la utilización de la biomasa forestal en el medio rural vasco con fines energéticos.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Aceptar y firmar el Convenio de colaboración “para promover la eficiencia



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Udalaren arteko “Euskadiko Landa Ingurunean baso biomasaren erabilera eta energia eraginkortasuna sustatzeko energia xedearekin” izeneko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta sinatzea.

Bigarren atala.- Hitzarmenak jasotzen dituen Astigarragako Udalaren betebeharrak beregain hartzea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta alde bozkatuko dutela aurreratu ondoren, komentatu du hitzarmen hau energia hitzarmenetik datorrela. Eta gaineratu du hitzarmena HAZI eta EVErekin sinatuko dela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Bizilagun batek galdetu du organikoa San Markos mankomunitateak eramango badu, biomasa nondik lortuko den. Eta alkateak erantzun dio oraingoz egurra erabiliko dela.

10.-Astigarragako HAPOaren aldaketaren – HEA23 “Zarkumendegi zabalpena”, sagardotegien ordenantzari eta lur urbanizaezineko beste zehaztapenei dagokionez – hasierako onarpena.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- “Zarkumendegi Zabalpena” HEA 23 eremuari dagokion Plan orokorraren Aldaketa puntualaren dokumenturako HAPOa Aldatzeko espedienteari hasierako onarpena ematea, baita sagardotegien ordenantzari eta lurzoru urbanizaezineko beste zehaztapen batzuei ere.

Bigarrena.- Dokumentua jendaurrean jartzea 2016ko urriaren 19ra arte; horretarako, GAOn eta lurraldean hedapen

energética y la utilización de la biomasa forestal en el medio rural vasco con fines energéticos en el municipio de Astigarraga”, entre El Ente Vasco de la Energía (EEE), HAZI Fundazioa y el Ayuntamiento de Astigarraga.

Segundo.- Asumir las obligaciones del Ayuntamiento establecidas en el convenio.

Toma la palabra el concejal Andoni, y tras adelantar que votará a favor, comenta que este convenio deriva del convenio de energía. Y añade que el convenio se firmará con HAZI y con EVE.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

Una vecina pregunta que si la materia orgánica se la va a llevar la mancomunidad de San Markos, de dónde se obtendrá la biomasa. Y alcalde le responde que de momento se utilizará madera.

10.- Aprobación inicial de modificación del PGOU de Astigarraga referida al AIU 23 “Zarkumendegi zabalpena”, la ordenanza de sidrerías y otras determinaciones del suelo no urbanizable.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Aprobar inicialmente el expediente de Modificación del P.G.O.U. para el área A.I.U. 23 “Zarkumendegi Zabalpena”, la ordenanza de sidrerías y otras determinaciones del Suelo No Urbanizable.

Segundo.- Someter el documento a información pública hasta el 19 de octubre de 2016, por medio de su publicación en el B.O.G. y en el diario o diarios de mayor



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

edo zirulazio handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da, dokumentua herritarren partaidetzako prozesuaren eraginpean jartzeko.

difusión o mayor circulación del territorio, con la finalidad de someter el documento a participación ciudadana.

Andoni zinegotziak aurreratu du alde bozkatuko dutela, eta jarraian adierazi du Plan Orokorra osoa berrikusi beharko litzatekeela; batetik, aldaketak pilatzen daudelako (aurreko legealdian 3 aldaketa egin ziren, orain beste bat onartu da eta bere taldeak Ubarburu Zabalpenaren aldaketa ere eskatu duela); eta bestetik, plan orokorra onartu ondoren hirigintza-araudi berriak indarrean sartu direnez, egun udalak lokalak eskuratzeko arazoak dituela, esaterako, Norberto Almandozen gertatu den bezala. Bukatzeko, komentatu du jendaurrean jartzen denean, bere taldeak alegazioak aurkeztuko dituela.

El concejal Andoni adelanta que votará a favor, y a continuación señala que debería revisarse todo el Plan General; por una parte, porque se están acumulando las modificaciones (en la anterior legislatura se realizaron 3 modificaciones, ahora se ha aprobado otra y su grupo ha solicitado también la modificación de Ubarburu Zabalpena); y por otra, al haber entrado en vigor las nuevas normativas de urbanismo tras la aprobación del Plan General, el ayuntamiento tiene problemas para adquirir locales en la actualidad, como ha ocurrido en Norberto Almandoz, por ejemplo. Para finalizar, comenta que cuando se exponga públicamente, su grupo presentará alegaciones.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

11.- Alokairu sozialeko erregimenean 7 babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako oinarriak.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Aiotzategi Kalea 4. atariko alokairu sozialeko erregimenean, 7 babes ofizialeko etxebizitza zozkatzeko baldintzak onartzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udal Iragarki taulan eta lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarian argitaratzea interesatuek eskabidea aurkezteko epea 2016ko irailaren 19a arte zabalduaz.

Hirugarrena.- Bi Bando egitea, bata uztailean eta bestea iraila hasieran, jendeak apuntatzeko aukeren berri izan dezan.

11.- Bases para el sorteo de 7 viviendas de VPO en régimen de alquiler social.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Aprobar las condiciones para el sorteo de 7 viviendas de protección oficial en régimen de alquiler social en Aiotzategi kalea 4.

Segundo.- Publicar las Bases en el B.O.G, en el Tablón de anuncio municipal y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio, ampliando el plazo de presentación de solicitudes hasta el 19 de septiembre de 2016.

Tercero.- Con el fin de darle mayor difusión, colocar un Bando por todo el municipio en el mes de julio y otro a primeros de septiembre.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du etxebizitza horiek aurreko legealdian doan lortu zirela, eta baita, hirigintza batzordean bandoa jarriko zela adostu arren, ez dakiela zentzurik ote duen, ikusirik azken boladan edozein gauzetarako jartzen direla (adibidez egun 3 bando daudela portaletan). Bukatzeko, bandoa gauza garrantzitsuetarako erabili beharko litzakeela komentatu du, eta udal gobernu taldeari horren inguruan hausnarketa egiteko eskatu dio.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

12.- Stua, S.A. - Minusmore, S.L. Hirigintzako hitzarmena.

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Indarrrik gabe uztea Astigarragako Udalaren eta Minusmore SL eta Stua SA sozietateek bere jardura garatzen duten lurzatiaren jabeen arteko hirigintza-hitzarmena, hasiera batean 2016ko martxoaren 19ko osoko bilkuraren erabaki bidez onartutakoa.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta gogora ekarri du bertan behera utziko den hitzarmenaren hasierako onarpenean egon ziren istiluak. Eta bukatzeko adierazi du hitzarmena bertan behera utzi dela, konpromisoak birpartzelazio proiektuan jaso direlako.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que esas viviendas se obtuvieron de forma gratuita en la legislación anterior, y también, que aunque se acordó que se colocaría un bando en la comisión de urbanismo, no sabe si eso tendría sentido, viendo que últimamente se colocan para cualquier cosa (por ejemplo, actualmente hay tres bandos en los portales). Para concluir, comenta que el bando debería utilizarse para cosas importantes, y solicita al grupo de gobierno municipal que haga una reflexión al respecto.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

12.- Stua, S.A. - Minusmore, S.L. Convenio urbanístico.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- *Dejar sin efecto el Convenio urbanístico entre el Ayuntamiento de Astigarraga y los propietarios de la parcela donde desarrolla su actividad Minusmore S.L y Stua S.A, aprobado inicialmente por acuerdo plenario de fecha 19 de marzo de 2016.*

Toma la palabra el concejal Andoni, y recuerda las incidencias habidas en la aprobación inicial del convenio que se va dejar sin efecto ahora. Y para concluir, señala que el convenio se deja sin efecto porque los compromisos quedan recogidos en el proyecto de reparcelación.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

13.- Udalaren eraikin, egoitza eta instalazioak eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzua. Esleipenaren proposamena

Alkatea eta Jon Arregi zinegotziak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu dute, onartua izan dadin:

LEHENA.- Udalaren eraikin, egoitza eta instalazioak eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzu lehiaketa UNI2, S.A. (Unión Internacional de Servicios Integrales) enpresari esleitzea 159.598,32 eurotan (BEZ kanpo) eta 16,02 kontratetik kanpo egin beharreko lanen prezio/orduko, punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 90,00 puntu.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 7.979,92 eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du batetik; esleipendun enpresa honekin teknikariek beldur direla, orain arte zerbitzu eman duen Guerrero Garbiketa enpresarekin ongi ohituta zeudelako, baina lehiaketan UNI2 enpresak irabazi duela, eta lehiaketak horrelakoak direla; eta bestetik, Guerrero Garbiketa enpresari eskerrak eman dizkio, urte guzti hauetan egindako lanarengatik.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

13.- Servicio de limpieza de edificios, dependencia e instalaciones municipales y centros escolares de Astigarraga. Propuesta de adjudicación.

El alcalde y el concejal Jon Arregi presentan este dictamen de la mesa de contratación para su aprobación:

PRIMERA Proponer la adjudicación del servicio de limpieza de edificios, dependencias e instalaciones municipales y centros escolares de Astigarraga a la empresa UNI2, S.A. (Unión Internacional de Servicios Integrales) por 159.598,32 euros (IVA sin incluir) y 16,02 precio/hora para trabajos a realizar fuera del contrato, ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 90,00 puntos.

SEGUNDA.- La empresa adjudicataria deberá presentar la garantía definitiva de 7.979,92 euros y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala, por una parte, que los técnicos están temerosos respecto a esa nueva empresa, porque estaban bien acostumbrados con la empresa Guerrero Garbiketa que ha prestado el servicio hasta ahora, pero que el concurso lo ganó la empresa UNI2, y que los concursos son así, y, por otra, da las gracias a la empresa Guerrero Garbiketa, por el trabajo realizado durante todos estos años.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

14.- Kiroldegiaren eraberritzearen bigarren fase obrak. Esleipenaren proposamena.

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

LEHENA.- Kiroldegiaren eraberritzearen bigarren fase obra (fitness gela eta fatxada bukatu) lehiaketa Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitzea 397.173,09 eurotan (BEZ kanpo), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 75,00 puntu.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 19.858,65 eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du teknikarientzat ez dela berri ona lehiaketa enpresa honek irabazi izana, bidegorriaren obran – enpresa berak egiten dagoena – arazo asko eduki dituztelako. Bestalde komentatu du esleipena atzerapenarekin datorrela, kiroldegiko erabilpenari gutxiago eragiteko, obra udan egitea hobe delako.

Bukatzeko, zinegotzi horrek esan du obra finantzatzeko aurreko legealdian diru-laguntza eskatu zela eta deialdian ezer ez jarri arren, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzera behartu dutela, eta hitzarmen hori sinatzeko kirol diputatua etorri dela, eta hori argazkia ateratzeko izan dela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

14.- Obras de la segunda fase de reforma del polideportivo (sala fitness y remates de fachada). Propuesta de adjudicación.

El alcalde presenta este dictamen de la mesa de contratación para su aprobación:

PRIMERA Proponer la adjudicación de la obra de construcción de la segunda fase de reforma del polideportivo (sala fitness y remates de fachada) a la empresa Construcciones Moyua, S.L. por 397.173,09 euros (IVA sin incluir), ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 75,00 puntos.

SEGUNDA.- La empresa adjudicataria deberá presentar la garantía definitiva de 19.858,65 euros y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo.

Toma la palabra el concejal Andoni e indica que para los técnicos no es una buena noticia que el concurso lo haya sido ganado esa empresa, porque en la obra del bidegorri, que está siendo realizada por la misma empresa, han tenido muchos problemas. Por otra parte comenta que la adjudicación viene con retraso, ya que es mejor que la obra se realice en verano para afectar menos al uso del polideportivo.

Para concluir, el concejal afirma que en la legislatura anterior se solicitó una subvención para financiar la obra y que pese a que en la convocatoria no se indicó nada, han obligado a firmar un convenio de colaboración, y que para su firma ha acudido el diputado de deportes, y que todo ha sido para sacarse la foto.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

15.-Kale izendegiaren aldaketa.

Alkateak obra eta zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Juanito-enea etxeko atzekaldeari, egun izenik gabe EMAKUMEON PLAZA deitzea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta azaldu du irizpen honek EHBildu taldearen “Martxoak 8”ko mozioan duela jatorria. Bestalde, adierazi du plaza horretan mural bat egin daitekeela, baina kontuan harturik PERCOaren arabera Sagardo plaza eta Pelotari kaleko tartea hiritartu behar dela, plazari beste itxura bat ematerik dagoela eta baita ere erabilerak finkatu. Bukatzeko komentatu du plaka jartzeko ekitaldi bat antolatu daitekeela.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du “Ohorezko sariak emateko arautegia” aldatzeaz dagoela, eta bertan, kale edo plaza izenak jartzeko irizpenak onartuko direla.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

16.- Buruntzaldeko auto-taxiko garraio zerbitzua. Lankidetzaren hitzarmena.

Alkateak bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Buruntzaldea Auto-taxiko garraio zerbitzuen araubide bereziko eremuko lankidetzaren hitzarmenaren lehen berrikuspena berrestea.

Bigarrena.- Hitzarmen hau garatzeko, hau da, auto ibilgailuetan hiri garraio publikoa eta hiri arteko garraio zerbitzua eskaintzeko sortutako Buruntzaldeko gune berezia garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ahalmena ematea alkateari, besteak beste,

15.- Modificación callejero.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

Asignar a la trasera de la calle Juanito-enea, actualmente sin nombre de callejero, EMAKUMEON PLAZA.

Toma la palabra el concejal Andoni y expone que este dictamen tiene su origen en la moción “8 de marzo” del grupo EHBildu. Por otra parte, manifiesta que en la plaza en cuestión puede hacerse un mural, pero teniendo en cuenta que según el PERCO el tramo entre Sagardo plaza y Pelotari kalea debe ser urbanizado, cabe la posibilidad de darle otro aspecto a la plaza, así como fijar sus usos. Para concluir comenta que se puede organizar un acto para poner la placa.

Toma la palabra la concejala Zorione y señala que está por modificar “La ordenanza para la concesión de títulos honoríficos” y que en ella se aprobarán los criterios para poner los nombres de calles y plazas.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

16.- Servicio de transporte de auto-taxi de Buruntzaldea – Convenio de colaboración.

El alcalde presenta el siguiente dictamen de la junta de portavoces para su aprobación:

Primero.- Ratificar la primera revisión del convenio colaboración de la zona de régimen especial del servicio de transporte de auto-taxis Buruntzaldea.

Segundo.- Autorizar al alcalde a la firma de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar este convenio, es decir, para desarrollar la Zona Especial de Buruntzaldea constituida para la prestación del servicio de transporte público urbano e interurbano en automóviles de turismo. Entre otros para



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

hitzarmena 40/2015 Legeari egokitzeko idatzi daitekeen agiri berria sinatzeko

firmar el documento que se pueda redactar para adecuar el convenio a la ley 40/2015.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta batzordean adierazi bezala, hitzarmena sinatuta ekartzea ez zaiola normala iruditzen adierazi du, eta baita, mugikortasun batzorde bat egonik, bertan ez aztertu izana. Bukatzeko komentatu du lege berriari moldatu beharko denez, orduan mugikortasun batzordetik pasatzea espero duela.

Toma la palabra el concejal Andoni y, tal y como lo hizo en la junta, señala que no le parece normal que se traiga el convenio firmado, y también que, habiendo una comisión de movilidad, no se haya estudiado el tema en ella. Para concluir, comenta que, al tenerse que adaptar a la nueva ley, espera que entonces pase por la comisión de movilidad.

Alkateak azaldu dio sinatuta ekarri izanaren arrazoia epeak izan direla, presa handia zegoelako sinatzeko, baina aurretik sinatutako beste hitzarmen baten aldaketa zehatzak direla.

El alcalde explica que la razón de haberlo traído firmado han sido los plazos, porque había una gran premura por firmarlo, pero que se trata de las modificaciones puntuales de otro convenio firmado previamente.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

17.- Astigarragako kiroldegiko bazkideak, Donostiako Paco Yoldi eta Etxadi igerilekuak erabili ahal izateko Donostiako udal kirol patronatuarekin lankidetzaren hitzarmena.

17.- Convenio de colaboración con el Patronato municipal de deportes de Donostia para la utilización de las piscinas Paco Yoldi y Etxadi por parte de los abonados del polideportivo de Astigarraga.

Alkateak Nerea zinegotziari pasa dio hitza, eta azken horrek kirola, gardentasuna eta parte-hartze batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

El alcalde cede la palabra a la concejala Nerea, que presenta el siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación para su aprobación:

Lehena.- Astigarragako kiroldegiko bazkideak, Donostiako Paco Yoldi eta Etxadi igerilekuak erabili ahal izateko Donostiako udal kirol Patronatuarekin lankidetzaren hitzarmena ontzat ematea.

Primera.- Aceptar el convenio de colaboración con el Patronato municipal de deportes de Donostia para la utilización de las piscinas Paco Yoldi y Etxadi por parte de los abonad@s del polideportivo de Astigarraga.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Segundo.- Autorizar al Alcalde para la firma de todos los documentos necesarios.

Nerea zinegotziak argitu du hitzarmen hau sinatu behar dela, Hernaniko igerilekua urtebetez itxita egongo denez, bitartean Donostiako 2 igerileku horiek erabiltzeko

La concejala Nerea aclara que es necesario firmar este convenio, dado que la piscina de Hernani permanecerá cerrada durante un año, para poder utilizar mientras tanto esas 2



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

aukera izateko. Eta gaineratu du, irizpenean ezer ez adierazi arren, 3. puntu bat ere onartu behar dela, hain zuzen, 2017ko aurrekonturako 7.197,94 euroko gastu konpromisoarena.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta gai zerrendan “*abonados*” hitza erabili dela adierazi du, eta eskatu du aurrerantzean hizkuntza sexistarik ez erabiltzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **bai irizpena bai gastu konpromisoa aho batez onartu** dira.

18.- Osoko Bilkurari Alkatetzaren 483/2016 dekretuaren berri ematea.

Astigarraga Lantzen Saren 2015eko likidazioa onartzen duen 483/2016 dekretuaren berri eman du Alkateak.

19.- 2015ko Kontu Orokorra onartzea.

Ogasun batzordeko irizpen hau aurkeztu da, onartua izan dadin:

Lehena.- 2015eko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- 21/2003 Foru Arauak, 63.4 artikulua xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berriaz ezarritakoaren arabera.

Alkateak hitza pasa dio kontu-hartzaileari eta horrek azaldu du, kontu orokorreko batzordean ongi ikusia eman ondoren, jendaurrean egon dela eta ez direla alegaziorik aurkeztu, eta orain dagokiona onartzea eta kontu epaitegira helaraztea dela.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta datorren

piscinas de Donostia. Y ha añadido, aunque en el dictamen no se haya señalado nada, hay que aprobar también un 3er punto, el correspondiente al compromiso de gasto de 7.197,94 euros para el presupuesto de 2017.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que en el orden del día se ha utilizado el término “*abonados*”, y solicita que en adelante no se utilice lenguaje sexista.

A continuación se procede a la votación, y **tanto el dictamen como el compromiso de gasto se aprueban por unanimidad.**

18.- Dar cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 483/2016.

El alcalde informa del decreto por el que se aprueba la liquidación de 2015 de Astigarraga Lantzen SA.

19.- Aprobación de la Cuenta General 2015.

Se presenta el siguiente dictamen de la comisión de hacienda para su aprobación:

Primero.- Aprobar la Cuenta General 2015,

Segundo.- De conformidad a lo dispuesto en la N.F. 21/2003, en su artículo 63.4 el Ayuntamiento rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente.

El alcalde cede la palabra al interventor que manifiesta, que tras el visto bueno en la comisión a las cuentas generales, han estado expuestas públicamente y no se han presentado alegaciones, y que lo que ahora corresponde es aprobarlas y trasladarlas al tribunal de cuentas.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

urteari begira, ekainaren 30erako onartuta egotea espero duela adierazi du, legez epe horretarako onartu behar baita.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

que, de cara al año que viene, espera que estén aprobadas para el 30 de junio, dado que legalmente debe estarlo dentro de ese plazo.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

20.- Osoko Bilkurari Alkatetzaren 322/2016 dekretuaren berri ematea.

2016rako kreditu-gerakinak 313.112,43 euroko zenbatekoaz gaineratzea onartzen duen 322/2016 dekretuaren berri eman du Alkateak.

20.- Dar cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 322/2016.

El alcalde informa del decreto 322/2016 por el que se aprueba la inclusión de remanentes de crédito por importe de 313.112,43 euros para el 2016.

21.- Udalbatzarrari kontu-hartzailearen txostena 2016ko apirilaren 29koa jakinaraztea.

Alkateak kontu-hartzailearen 2016ko apirilaren 29ko txostenaren berri eman du, txosten hori kreditu gerakinak txertatzeko modalitatean kredituak aldatzeko espedienteari dagokio.

21.- Comunicación al Pleno del informe del interventor de fecha 29 de abril de 2016.

El alcalde informa del informe del interventor de 29 de abril de 2016, correspondiente al expediente de modificación de créditos en la modalidad de inclusión de remanentes.

22.- Gastuak baimentzeko proposamena.

Alkateak ogasun batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Udal kontu-hartzailearen proposamenean bildutako gastua onartzea:

1 0500.227.99.162.10 (2016ko hondakinen bilketa-zerbitzua) 400.000 euro.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

22.-Propuesta de autorización de gastos.

El alcalde presenta el siguiente dictamen de la comisión de hacienda para su aprobación:

Proceder a la aprobación del gasto contenida en la propuesta de la intervención municipal.

1 0500.227.99.162.10 (2016ko hondakinen bilketa-zerbitzua) 400.000 euros.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

23.- Osoko Bilkurari Alkatetzaren 517/2016 dekretuaren berri ematea.

Alkateak 2015eko kreditu gehigarriak txertatzeari buruzko 517/2016 dekretuaren berri eman du.

Andoni zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du bere taldeak proposatu zuela remanentea udalak Urumea berrin jasoko duen 800 m²ko lokala haur eskola bezala egokitzeko erabiltzea, haur eskolarentzako gutxienez 600 m² behar direlako, eta udalak ez dituelako tamaina horretako lokalik.

Alkateak erantzun dio lokal horiek jaso arte ez dela ezer erabakiko. Gainera berak eta Olaia zinegotziak komentatu dute herriko beste talde batzuk, esaterako, gazte asanblada, lokalak eskatu dituztela udalean. Eta Andoni zinegotziak komentatu duenean bere ustez zerbitzu basikoei lehentasuna eman behar zaiela, alkateak erantzun dio oraingoz haur eskolak badituela beharrezko lokalak, iaz, 2. lokala egokitu baitzen.

Ainara zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du haur eskolaren beharra gazte asanbladakoekin ezin dela konparatu eta behin-behingo konponbideak ezin direla behin betiko arazoa konpontzeko eskusa batean bihurtu.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du gaia aztertu behar dutela.

24.- Udalbatzarrari kontu-hartzailearen txostena 2016ko ekainaren 7koa jakinaraztea.

Alkateak kontu-hartzailearen 2016ko ekainaren 7ko txostena aurkeztu du. Eta hitza pasa dio kontu-hartzaileari.

Horrek adierazi du udal aurrekontuak ez duela betetzen egonkortasun helburua eta gastu

23.- Dar cuenta al Pleno del decreto de alcaldía 517/2016.

El alcalde informa del decreto 517/2016 sobre inclusión de créditos añadidos de 2015.

Toma la palabra el concejal Andoni, y señala que su grupo propuso que el remanente se utilizase para acondicionar como escuela infantil el local de 800 m² que el ayuntamiento va a recibir en Urumea Berri, dado que para la escuela infantil se necesitan como mínimo 600 m², y el ayuntamiento carece de locales de ese tamaño.

El alcalde le contesta que no se decidirá nada hasta recibir esos locales. Además, él y la concejala Olaia comentan que otros grupos de la localidad, como por ejemplo, Gazte Asanblada, han solicitado locales al ayuntamiento. Y cuando el concejal Andoni comenta que él cree que hay que dar prioridad a los servicios básicos, el alcalde le contesta que la escuela infantil por el momento ya tiene los locales necesarios, ya que el pasado año se acondicionó el 2º local.

Toma la palabra la concejala Ainara y señala que la necesidad de la escuela infantil no puede ser comparada con la de Gazte Asanblada, y que las soluciones provisionales no pueden convertirse en excusa para solucionar definitivamente un problema.

Toma la palabra la concejala Zorione e indica que han de estudiar el asunto.

24.- Comunicación al Pleno del informe del interventor de fecha 7 de junio 2016.

El alcalde presenta el informe del interventor de 7 de junio de 2016. Y cede la palabra al interventor.

Éste indica que los presupuestos no cumplen el objetivo de estabilidad y la norma de gasto, pero que dado que en la liquidación del



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

araua, baina 2015eko urteko aurrekonturen lidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izen direnez, ez dagoela zertan Plan ekonomiko-finantzieroa egin behar.

presupuesto del 2015 hay ahorro neto y remanente de tesorería no hay porque elaborar el Plan económico-financiero.

25.- Alkatetzaren 747/2016 dekretua berrestea.

Alkateak 747/2016 dekretuaren berri eman du, eta azaldu du bertan *Txertatu Merkatuan* eta *Hazi* programentzako urte anitzeko gastua aurreikusten denez – 7.224,85 euro 2017an eta 7.262,49 euro 2018an – dekretua udal osoko bilkurak berretsi behar duela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **dekretua aho batez berretsi** da.

25.- Ratificación del decreto de Alcaldía 747/2016.

El alcalde informa del decreto 747/2016 y explica que al preverse en él un gasto plurianual para los programas *Txertatu Merkatuan* y *Hazi* –7.224,85 euros en 2017 y 7.262,49 euros en 2018an–, el decreto tiene que ratificado por el pleno municipal.

A continuación se procede a su votación, y se aprueba por unanimidad.

26.- Informazio, galdera eta eskariak

a.- Excavaciones Astigarragaren baimen-luzapena.

Andoni zinegotziak komentatu du; batetik, Excavaciones Astigarragari harrobia betetzeko baimena luzatu zaiola; eta bestetik, beti esan dela egokia litzatekeela hitzarmen bat sinatzea, baina ez dela horrelakorik egin.

Alkateak erantzun dio Jaurlaritzak ere luzapena baimendu duela, eta hori urtebeterako eman zaiola.

b.- Smartu aplikazioa

Andoni zinegotziak gaia zertan dagoen galdetu du, dekretua 2015eko baita. Nerea zinegotziak erantzun dio hasieran aurkeztu zen proposamenean aldaketak egin direnez, gauzak fintzen daudela.

Andoni zinegotziak gaiaren inguruko informaziorik ez dutela, eta nori eta zein batzordetan galdetu behar den galdetu dio. Nerea zinegotziak erantzun dio, aurreko

26.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Prórroga del permiso de Excavaciones Astigarraga

El Concejal Andoni comenta, por una parte, que se le ha prorrogado el permiso para colmatar la cantera a Excavaciones Astigarraga y, por otra, que siempre se ha comentado la necesidad de firmar un convenio, pero que nunca se ha hecho tal cosa.

El alcalde le contesta que el Gobierno Vasco también ha autorizado la prórroga, y que le ha sido concedida para un año.

b.- Aplicación Smartu

El concejal Andoni pregunta cómo se encuentra el tema, ya que el decreto es de 2015. La concejala Nerea le contesta que al haberse realizado modificaciones en la propuesta que se presentó inicialmente, están ajustando las cosas.

El concejal Andoni indica que carecen de información en torno al tema, y pregunta a quién y en qué comisión tienen que preguntar.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

legealdian eskatutako laguntza baten baitan daudela aurrera eramaten, eta informazioa parte-hartze batzordean galdetu dezaketela.

Andoni zinegotziak erantzun dio beraiek sakeleko telefonoetatik web-gunea ikusteko eskatu zutela laguntza, eta Nerea zinegotziak argitu dio web-guneko parte-hartzea ez denez erabiltzen, aplikazio turistikoen alde egin dutela, eta parte-hartzea facebook bidez egiten dela.

Andoni zinegotziak facebook-en herritarrek egiten dituzten galderak ez direla erantzuten aurpegiratu die udal gobernu taldekideei, eta Nerea zinegotziak baietz erantzutean, tresna horren inguruko eztabaida sortu du.

c.- Santiagomendiko argiteria

Andoni zinegotziak adierazi du dekretu bat ebatzi dela 40.000 eurotik gorako gastua onartzen eta hori ez dela batzordetik pasa, orain dela gutxi bat egon denean. Jon zinegotziak erantzun dio batzordetik ez pasatzearren arrazoia diru-laguntza bat ez galtzearren izan dela.

d.- Herri eskola. Udal inbertsioak

Andoni zinegotziak galdetu du herri eskolan udan zer obra egingo diren zehaztuta dagoen. Olaia zinegotziak beharren txosten bat aurkeztu dutela dio, baina oraindik aztertzeaz dagoela.

Andoni zinegotziak adieraztean obra batzuk – malden egitasmoa, esaterako – udan egitea aproposagoa dela, Zorione zinegotziak erantzun dio uztailaren 27ko astean aztertu eta obra eta zerbitzuekin hitz egingo dela, obrak

La concejala Nerea le contesta que lo están llevando adelante en el marco de una ayuda solicitada en la legislación anterior, y que la información la deben solicitar en la comisión de participación.

El concejal Andoni le contesta que solicitaron la ayuda para poder ver la página web desde los teléfonos móviles, y la concejala Nerea le aclara que al no utilizarse el apartado de participación de la página web, han optado por la aplicación turística, y que la participación se lleva a cabo mediante Facebook.

El concejal Andoni les recrimina a los miembros del gobierno municipal que en Facebook no se contestan las preguntas formuladas por la ciudadanía, y al replicar la concejala Nerea que sí, surge un debate en torno a esa herramienta.

c.- Alumbrado de Santiagomendi

El concejal Andoni señala que se ha emitido un decreto que aprueba un gasto superior a 40.000 euros y que eso no pasó por la comisión, cuando ha habido una recientemente. El concejal Jon le contesta que la razón de que no haya pasado por la comisión ha sido la de evitar la pérdida de una subvención.

d.- Escuela pública. Inversiones municipales

El concejal Andoni pregunta si ya se han especificado las obras que se realizarán en verano en la escuela pública. La concejala Olaia indica que se ha presentado un informe de necesidades pero que aún está pendiente de estudio.

Al indicar el concejal Andoni que es más apropiado realizar ciertas obras –el proyecto de las rampas, por ejemplo– en verano, la concejala Zorione le contesta que el tema se



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

bideratu ditzaten; eta horiek udan eta gabonetako oportretan egingo direla.

estudiará la semana del 27 de julio y que se hablará con Obras y Servicios al objeto de dar curso a las obras, y que éstas se realizarán en verano y en las vacaciones de Navidad.

e.- Herri-bideak

Andoni zinegotziak herri-bideak garbitu beharko liratekeela adierazi du, bide ertzak belarrez beteta baitaude. Alkateak erantzun dio urtean 3 belar mozketak egiten direla, eta Santiagomendin lehendabizikoa egiten daudela.

e.- Caminos públicos

El concejal Andoni indica que se deberían limpiar los caminos públicos, ya que sus bordes están llenos de hierbas. El alcalde le contesta que se realizan 3 desbroces al año, y que en Santiagomendi están realizando el primero.

f.- Aurrekontu parte-hartzaileak

Herritarrei inbertsioetako partida aukeratzeko kontsulta noiz egingo den zehaztuta dagoen galdetu du Andoni zinegotziak. Jon zinegotziak teknikariarekin bilera egin behar duela erantzun dio, eta 5 edo 6 proposamen aukeratu ondoren, galdeketa iraila hasierarako utziko dela.

f.- Presupuestos participativos

El concejal Andoni pregunta si ya se ha determinado cuándo se va a realizar la consulta dirigida a la ciudadanía para elegir la partida de inversiones. El concejal Jon le contesta que tiene pendiente una reunión con el técnico, y tras elegir 5 o 6 propuestas, la consulta se dejará para principios de septiembre.

g.- Anuskako urbanizazio-proiektua

Proiektua idazteko lana zertan dagoen galdetu du Andoni zinegotziak, eta Jon zinegotziak gaia korapilatsua dela erantzun dio. Irisgarritasuna bermatzeko, lorategitik malda bat egitea proposatu baita, baina horretarako ia lorategiaren erdia behar dela.

g.- El proyecto de urbanización de Anuska

El concejal Andoni pregunta en qué punto se encuentra la redacción del proyecto, y el concejal Jon le contesta que se trata de un tema complejo. Ya que se ha propuesto hacer una rampa desde el jardín al objeto de garantizar la accesibilidad, pero para eso se precisa casi la mitad del jardín.

Andoni zinegotzia adierazi du proiektuaren xedea inguruko urbanizazio osoa jasotzea zela, eta baita ere udalak hiritartze-lanak zatika egiteko tresna bat edukitzea.

El concejal Andoni indica que el objetivo del proyecto era abarcar toda la urbanización de la zona, así como que el ayuntamiento dispusiera de una herramienta para realizar por partes trabajos de urbanización.

Alkateak erantzun dio horretan daudela, baina fundazioaren lurak ez direnez hartu nahi, beste irtenbide batzuek bila dabilzala, esaterako, udalak duen lokalean igogailu bat

El alcalde le contesta que están en ello, pero al no querer utilizar terrenos de la fundación, se



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

jartzea, azkeneko hori merkeagoa dela baitirudi.

están buscando otras soluciones, como por ejemplo la instalación de un ascensor en el local que dispone el ayuntamiento, ya que parece ser una solución más económica.

h.- Autobus geltokia.

Andoni zinegotziak adierazi du; batetik, Ibai-lur aldean autobus geltoki jarri dela, baina batzuetan autobusak ez direla gelditzen; eta bestetik, konpainia ordutegiak moldatzekotan gelditu zela, baina ez dela horrelakorik egin. Alkateak autobus konpainiarekin hitz egingo duela erantzun dio.

h.- Parada de autobús

El concejal Andoni señala, por una parte, que se ha instalado una parada en la zona de Ibai-lur, pero que a veces los autobuses no paran, y, por otra, que la compañía quedó en adaptar los horarios, cosa que no se ha hecho. El alcalde le contesta que hablará con la compañía de autobuses.

i.- Herri arteko pilota txapelketaren autobus zerbitzua

Andoni zinegotziak pilota txapelketarako autobusa jartzea ondo dagoela dio, baina 10 herritarrek bakarrik hartu zutela.

i.- Servicio de autobuses del torneo Interpueblos

El concejal Andoni señala que está muy bien lo de poner un autobús para el campeonato de pelota, pero que sólo fue utilizado por 10 personas.

j.- Iruzur fiskalari aurre egitea.

Iruzur fiskalari kanpo-kontratazio baten bidez aurre egiteagatik auzi-errekurtsoa galdu denez, udal baliabideen bidez egitea proposatu du Andoni zinegotziak, horretarako beharrezkoa bada langile bat kontratatuz.

j.- Lucha contra el fraude fiscal

Dado que se ha perdido un recurso contencioso para luchar contra el fraude fiscal mediante una contratación externa, el concejal Andoni propone hacerlo mediante recursos municipales, contratando para ello un trabajador, si fuera necesario.

k.- Santio jaietako ostalaritza-ordutegiak.

Andoni zinegotziak adierazi du ostalaritza-ordutegiak direla eta kexak jaso dituztela, eta alkateak erantzun dio udaltzainekin hitz egin ondoren jarri direla.

k.- Horarios de hostelería en las fiestas de Santiago

El concejal Andoni indica que han recibido quejas con motivo de los horarios de hostelería, y el alcalde le contesta que el mismo se ha aprobado tras hablar con la guardia municipal.

Andoni zinegotziak azaldu dio iazko ordutegi bera mantendu dela, baina iaz jaiak

El concejal Andoni le contesta que se ha



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

ostegunarekin hasten zirela eta aurten berriz ostiralekin, eta ez dela normala ostiralean 4:30ean itxi beharra, eta astelehenean berriz, 7:00etan.

mantenido el mismo horario que el año pasado, pero que entonces las fiesta comenzaron en jueves y este año, en cambio, en viernes, y que no es normal tener que cerrar el viernes a las 4:30 y el lunes, a las 7:00.

I.- Santio jaien egitarauko agurra.

Andoni zinegotziak adierazi du harrিতa daudela jai-egitarauko lehen agurra gaztelani hutsean delako, egia den arren, gero bertsoa euskaraz dela.

Zorione eta Nerea zinegotziak erantzun diote beren nahia alderantzikoa zela, hau da, euskarari lehentasuna ematea, eta euskara teknikariarekin hitz egin zutela, euskararen barne erabilera arauak ez zutelako urratu nahi. Baina gaia jai-batzordera eramango dutela.

Erantzun horrek bertaratuen artean eztabaida sortu du, bakoitzak gaiaren inguruko perzeptzio desberdina duelako, batzuentzat presentzia handiagoa den bitartean, besteentzat argazkien azpian doana garrantzi handiagoa du.

I.- Saludo del programa de fiesta de Santiago

El concejal Andoni manifiesta que están sorprendidos porque el primer saludo del programa de fiestas está únicamente en castellano, si bien es cierto que el verso posterior es en euskera.

Las concejalas Zorione y Nerea le contestan que su deseo era el contrario, es decir, priorizar el euskera, y que hablaron de ello con la técnico de euskera, porque no querían infringir las normas de uso interno del euskera. De todos modos, llevarán el tema a la comisión de fiestas.

Esa respuesta origina un debate entre los presentes, porque cada uno tiene una percepción diferente en torno al tema, dado que mientras para unos tiene mayor presencia así, para otros es más importante lo que va debajo de las fotos.

Bukatzeko, Andoni zinegotziak bertaratu guztiei jai zoriontsuak opa dizkie, eta bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2016ko uztailaren 16an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria